San Telmo Museoa

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, SAN TELMO MUSEOKO WEB ATARIAREN GARAPEN TEKNOLOGIKOKO, EBOLUZIOKO ETA MANTENTZE-LANETAKO ZERBITZUA, PROZEDURA IREKIERAREN BITARTEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA

Aurkibidea

1. AURREKARIAK
   1.1 San Telmo Museoari buruz
   1.2 Egungo web plataformari buruz
      Donostia Kulturarekin konektatzen
      CMSa
      Kanpoko beste plataforma batzuekiko elkareragina
2.0 KONTRATUAREN XEDEA
3.0 ESPARRU ESTRATEGIKOA
   3.1 Helburu estrategikoak
   3.2 Erronka nagusiak
   3.3 Hartzaileak eta xede-publikoak
   3.4 Edukiaren arkitektura
   3.4.1 Webgunearen egitura orokorra
   3.5 Agenda
   3.6 Ildo grafikoa eta arte-zuzendaritza
4.0 IRISMENA
   4.1 Proiektuaren kontzeptualizazioa eta definizio funtzionala eta azpiegitura teknologikoa
   4.2 San Telmo Museoaren webgune berria diseinatzea
   4.3 San Telmo Museoaren webgune berria ezartzea
   4.4 SEO migrazioa eta edukiaren migrazioa
   4.5 SEO optimizaioa
   4.6 Aholkularitza eta web-analisiaren garapena
   4.7 Webgunea abiaraztea eta ekoizpenean jartzea
   4.8 Webgunea mantentzeko zerbitzua (prebentiboa, ebolutiboa eta zuzentzailea)
5.0 BETEKIZUN TEKNIKOAK
   5.1 Erabiltzailearen esperientziarekin lotutakoak
      Irisgarritasuna
      Teknologia estandarrak
      Protokoloen euskarria
      Mobile First
      Nabigazio intuitiboa
      Nazioartekotzea
      Webgune dinamikoa
      Barneko estekak edo lotutako edukia

SEO optimizazioa
Bilatzaile integratua
Nabigazio-esperientzia berezia
5.2 Plataformaren kudeaketarekin eta administrazioarekin lotuak
Rolen/baimenen kudeaketa
Hizkuntzen kudeaketa
Menuen kudeaketa
Orrialdeen kudeaketa
5.3 Donostia Kulturarekiko konexioarekin lotuak
5.4 Nahi diren ad hoc funtzionalitateekin lotuak
6.0 EZARTZEA
6.1 Ezartzeko epea
6.2 Prestakuntza
6.3 Edukiak migratzea
7.0 ZERBITZUAK
7.1 Zerbitzua emateko lekua
7.2 Ordutegiak
7.3 Intzidentzien tipologia eta intzidentzia-motak
7.4 Arau-hausteak
7.5 Bilerak

1. AURREKARIAK

1.1 San Telmo Museoari buruz

San Telmo Museoa 1902an sortu zen. Urte hartan, Donostiako udalak museo historiko, artistiko eta arkeologiko gisa inauguratu zuen. Gaur egun, XVI. mendeko dominikoen komentu batean dago, Donostiako Parte Zaharrean.

2011n, Nieto y Sobejano estudioak eraikina zabaldu zuen, arkitektura garaikideko eranskin batekin, eta, gaur egun, 10.000 m^2 ditu, guztira. San Telmo berri horrek bere burua Euskal Gizartearen Museo gisa definitzen du, eta proiektu konplexu eta askotarikoa du, euskal gizartearen beraren isla. Hain zuzen, erronka handia da berrasmatzea eta gaurko garaietara eta XXI. mendeko herritarren kezka sozial, politiko, ekonomiko eta kulturaletara egokitzea.

Museoak hainbat diziplinatako bildumak ditu: pieza arkeologikoak; euskal etnografia hiritar eta landatarreko bilduma esanguratsu bat; jantziak; eta armagintzako, historiako, argazkigintzako eta arte ederretako bilduma zabal-zabala.

Bilduma horiek, 120 urtean sortutako ondarea, gizarte baten ispilua dira, eta euskal gizartearen bilakaera irudikatzeko aukera ematen dute; Museoa garatzeko ardatz nagusia osatzen dute, hain justu. Museoak bere bildumen bitartez euskal gizartearen iragana eta oraina ezagutzea eta horien inguruan hausnartzea du xede, begirada garaikidea erabiliz, egungo gizartearen askotarikotasunera irekia.

Jarraian, San Telmo Museoa berezi egiten duten gakoak nabarmenduko ditugu.

1. Museo heterogeneoa eta diziplina anitzekoa: Museoa sarbide ezin hobea da bisitariak euskal kulturaren funtsezko elementuetara hurbildu ahal izateko: antzinako bizimoduak, tradizioak, mekanizazioaren aurreko ekoizpen-prozesuak, industria-garapena, hirien garapena, mugimendu sozialak, eraldaketa kulturalak eta politikoak eta abar. Haren bildumei dagokienez, orotariko museoa da, eta, horrenbestez, gai interesgarri ugari jorratzeko aukera du, balio sinboliko, hezkuntza arloko balio eta ondare-balio handikoak euskal gizarte osoarentzat: batzuetan, berezko bildumetatik abiatuta, eta, beste batzuetan, beste museo edo instituzio batzuekin elkarlanean.

2. Museo garaikidea: berriz ireki zenetik, faktore hori, garaikidetasuna, hain zuzen, presente egon da, eta estrategikoa da museoa garatzeko. 2011tik, Erronkak proiektua finkatu egin da, askotariko hartzaileak dituena, jardueren eskaintza iraunkorra baitu, gure gizartea kezkatzen duten gaien ezagutza eta haiei buruzko hausnarketa eta eztabaida errazteko, esate baterako, giza eskubideen, jasangarritasunaren, genero-berdintasunaren, zientzia-garapenaren, turismoaren edo Europaren ingurukoa. Halaber, garaikidetasuna aldi baterako erakusketetan ere txertatuta dago, hala gaiagatik nola gure ondarearen begirada eta berrirakurketengatik, baita beste proiektu batzuetan ere, esaterako, Hau-n, hots, euskal objektu tradizional bat egun erabiltzeko berritzean eta eguneratzean datzan diseinu-lehiaketan.

3. Artearekiko eta sorkuntzarekiko harreman luzea: San Telmo Museoak beti mantendu du arte ederren museo bat eta museo etnografiko bat izatearen arteko tentsioa. Bitasun horixe bera San Telmoren nortasun-bereizgarri bat da. Museoak bere burua lehen aldiz definitu zuenetik, artea museoaren erdigunean egon izan da. 1960ko hamarkadatik, euskal artisten hainbat belaunaldi STMko bildumak eta erakusketak erreferentzia zituztela hazi dira, eta haietatik ikasi dute. Euskal artearekiko eta inguruko artistekiko harreman hori museoaren nortasunaren parte da oraindik ere.

1.2 Egungo web plataformari buruz

San Telmo Museoa funtsezko piezetako bat da Donostia Kulturaren ekosistema digitalean,

hau da, hainbat kultur esparrutan espezializatutako webguneak biltzen dituen espazio birtualean.

Donostia Kultura, hain zuzen, kulturaren alorreko Donostiako Udalaren enpresa-erakunde publikoa da, eta webgunea du bere erdigune nagusia, non jasotzen baitira Donostiako kultur eskaintzarekin lotutako askotariko informazioa eta zerbitzuak. Erdigune nagusi horretan, gai zehatzen inguruko hainbat webgune espezifiko daude, eta bakoitzak bere ikusmoldea eta edukia ditu. Oro har, Donostia Kulturaren ekosistema digitala elkarlotutako sare baten moduan dabil, eta erabiltzaileei Donostiako kultur bizitza osorako sarbidea ematen die.

San Telmo Museoa ekosistema horren funtsezko parte bat denez, online kultur esperientzia hori aberasten laguntzen du, artea, historia eta euskal ondarea mundu osoko hartzaileei inguratzen baitie. Bisitariei museoko bilduma iraunkorrei eta aldi baterakoei, erakusketei, ekitaldiei, heziketa-tailerrei eta abarri buruzko informazio zehatza ematen die.

Donostia Kulturarekin konektatzen

Edukien kudeaketa optimizatzeko eta informazioa ez bikoizteko, San Telmo Museoak eta lotutako webguneek Donostia Kulturak bere web plataforman daukan REST APIa erabiltzen dute, honako informazio hau eskuratzeko:

- Agendako ekitaldiak
- Erakusketak (agenda formatua)
- Ikastaroak
- Oharrak eta prentsa-deialdiak
- Albisteak

CMSa

Donostia Kulturaren REST APIak San Telmo Museoaren webgunerako ezinbesteko informazioa ematen badu ere, museoak ere badu berezko CMS bat (edukiak kudeatzeko sistema), Joomlan garatua. CMS hori behar-beharrezkoa da museoaren webgunean ageri den gainerako edukia kudeatzeko, hau da, APItik zuzenean eskuratzen ez den hori.

Kanpoko beste plataforma batzuekiko elkarreragina

San Telmo Museoaren webguneak ez du integrazio konplexurik beste plataforma batzuekin. Hala eta guztiz ere, gomendagarria da lizitatzaileak Museoak nolabaiteko lotura duen gainerako plataformak ezagutzea, **hobekuntzak proposatzeko** erabilgarria suerta baitaiteke.

- **Sarreren salmenta eta erreserba:** Kanporako sarbidea, CTA baten bitartez, espazio jakin batera (EUROMUS, edo dena delako plataforma), erabiltzaileak handik sarrerak erosteko, tailerrak erreserbatzeko, bazkide-txartelak erosteko eta abar.
- **Second Canvas:** Aplikazio horrek aukera ematen du San Telmo Museoaren artelanak esploratzeko, era guztiz berri eta berritzailean. Aplikazioak gigapixel-teknologia darabil Museoko bildumako margolanen, eskulturen eta artelanen bisita zehatz-zehatzak eskaintzeko. Aplikazioak berezko eduki-kudeatzailea du, baina integrazio bat dago, aplikazioko margolanak, eskulturak eta artelanak webgunean erakusteko.
- **EMSIME:** Euskal Autonomia Erkidegoko museo guztien datu-base zentralizatu bat da, eta haien bildumen, erakusketen, ekitaldien eta harremanetarako datuen informazioa dauka. Gaur egun, EMSIMEko informazioa eskuratzeko, esteka bat dago, eta erabiltzaileak San Telmo Museoaren webgunetik irten behar du atal horretara sartzen den bakoitzean.
- **ABSYS:** Tresna indartsuak ematen ditu liburutegietako bildumak katalogatzeko eta kudeatzeko, besteak beste, liburuak, aldizkarietako argitalpenak, ikus-entzunezko edukiak eta baliabide elektronikoak. EMSIMErekin gertatzen den bezala, plataforma horretara sartzeko, erabiltzailea San Telmo Museoaren webgunetik kanpora bidaltzen duen esteka bat erabiltzen da.
- **Eskulturen atlasa:** Hiriaren fisionomia osatzen duten eskulturak esploratzeko eta ezagutzeko tresna. Kasu honetan, eskulturen irudiak FTP batera igotzen dira,

eta edukia Excel baten bitartez elikatzen da, zeina San Telmo Museoaren webgunearen CMSa ez beste panel batetik kudeatzen baita.
- **Egin lan gurekin:** Kanporako sarbidea, Donostiako Udalaren webgunera.
- **Kontratatzailearen profila:** Kanporako sarbidea, Donostiako Udalaren webgunera.

2.0 KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da San Telmo Museoaren webgunerako web ingurune berri bat garatzea eta ezartzea, baita hura gero mantentzea eta etengabe hobetzea ere.

Jarraian, kontratistak eman beharrezko zerbitzuak zerrendatu dira:

- Proiektuaren kontzeptualizazioa eta definizio funtzionala eta azpiegitura teknologikokoa.
- San Telmo Museoaren webgune berria diseinatzea.
- San Telmo Museoaren webgune berria ezartzea.
- SEO migrazioa eta edukiaren migrazioa.
- SEO optimizazioa
- Aholkularitza eta web-analisiaren garapena.
- Webgunea abiaraztea eta ekoizpenean jartzea.

- Webgunea mantentzeko zerbitzua (prebentiboa, ebolutiboa eta zuzentzailea).

3.0 ESPARRU ESTRATEGIKOA

"San Telmo Museoa zer den islatzea"

Webgune berriak museo osoa irudikatu behar du, haren dohain eta ezaugarri espezifikoak nabarmendu behar ditu, baita erabiltzaileei zerbitzu emateko nahia ere. Museo irekia, irisgarria, soziala eta garaikidea izan behar du, eta emozioei zein adimenari dei egin behar die. Webguneak aurkezpen-txartel interaktibo lanak egingo ditu, eta mundu mailako irismena izango du etengabe.

Jarraian, webgune berriak bete behar dituen gakoak zehaztu dira:

Webgunea, museoaren egoitza digitala

Webguneak San Telmo Museoaren egoitza digitala izan beharko du, eta online presentzia sendoa eta jarraitua eman beharko du, espazio fisikoaren osagarri.

Museoaren eta artearen dimentsio-aniztasuna islatzen duen webgunea

Webguneak museoaren eta haren arte-bildumen askotarikotasuna eta konplexutasuna irudikatu eta islatu beharko du, eta haien ertz eta ikusmolde ugariak erakutsi beharko ditu.

Esploratzera, gozatzera, ikastera, behatzera eta hausnartzera gonbidatzen duen webgunea

Webguneak erabiltzaileak edukiaz esploratzera eta gozatzera gonbidatzen dituen plataforma bat izan beharko du, eta ikasketa, behaketa eta hausnarketa sustatu beharko ditu.

Webgune inklusibo eta irisgarria, askotariko gaitasun fisiko, sentsorial eta kognitiboetarako

Webguneak inklusiboa eta irisgarria izan beharko du, eta bermatu egin beharko du erabiltzaile guztiek eskura ditzaketela bertako edukiak, eta haietaz goza dezaketela, edozein gaitasun fisiko, sentsorial eta kognitibo izanik ere.

Webgunea, museoaren ospe digitalaren indargarri

Webguneak San Telmo Museoaren ospe digitala indartu beharko du, eta tokiko eta nazioarteko esparruko kulturaren eta museoen eremuan posizionatu.

Webgunea, hezkuntzarako eta ikerkuntza babesteko baliabidea

Webguneak hezkuntzarako eta ikerkuntza babesteko baliabide lanak egin beharko ditu, ikaskuntza eta bildumen eta haiei lotutako gaien ikerkuntza sakona erraztuko duten informazioa eta materiala emanez.

3.1 Helburu estrategikoak

Proiektuaren helburuak museoaren marka indartzea, komunitate engaiatua sustatzea eta museoaren negozio-helburuei laguntzea izango dira, nagusiki. Alderdi horietako bakoitza funtsezkoa da plataforma digital berriak arrakasta izan dezan.

Marka

Webgunea euskal kultura eta artea ezagutzeko eta hedatzeko erreferentzia bihurtzea.

San Telmo Museoa ezagutaraztea, eta haren ondareari, bildumei, erakusketei, jarduerei eta zerbitzuei balioa aitortzea, euskal kulturan eta gizartean erreferentziazko museo gisa duen lekua indartzeko.

Komunitatea

Museoarekiko atxikimendua sustatzea, hartzaileekin hurbileko harremana sustatuta, haien interesei eta helburuei erantzuten dieten edukien bitartez.

Negozioa

Hartzaileen interesa partaidetza aktibo bihurtzea.

Erabiltzaile digital eta bisitari berriak erakartzea museora, baita aurrez aurreko jarduera zein jarduera digitaletako parte-hartzaileak eta bazkide berriak lortzea.

3.2 Erronka nagusiak

Proiektu honek hainbat erronka dakartza, jorratu egin behar direnak webgune berriak San Telmo Museoaren itxaropena eta helburuak betetzen dituela bermatzeko. Erronka horiek markaren, erabiltzaileen esperientziaren, edukiaren, kudeaketaren eta negozioaren hainbat alderdiri buruzkoak dira.

Marka

Museoagatiko, haren bildumagatiko eta edukiengatiko jakin-mina sortzea.

Esperientzia

Erabiltzaileen esperientzia dinamikoa lortzea, esplorazioa sustatuko duena eta eduki eta informazio garrantzitsura erraz heltzeko aukera emango duena.

Eduki, tresna eta baliabideak ematea, murrizketa geografikorik gabe, euskal kulturaren, artearen eta gizartearen ezagutza eta haiekiko harremana errazteko, eta, gainera, bisitariaren esperientzia hobetzeko.

Edukien irisgarritasuna eta funtzionalitatea bermatzea, hartzaile guztientzat.

Edukia

Edukien arteko erlazioa erraztea.

Gaiak eta edukiak lehenestea, esperientzian gainkargarik ez izateko, eta oreka bilatzea komunikatu nahi denaren eta hartzaileek egiaz nahi dutenaren artean.

Kudeaketa

Edukien kudeaketa eta eguneratzea soiltzea.

Edukiaren arabera departamentu ezberdinek kudeatzeko aukera ematea.

Museoaren beharrei eta errealitateari erantzutea, bereziki agendaren atalean.

Negozioa

Museoaren web-esperientzia webgune komertzialagoen estandarrekin bateratzea, bereziki erosketa-prozesuak.

3.3 Hartzaileak eta xede-publikoak

Webguneak topagune bat izan behar du une ezberdinetan behar ezberdinak dituzten askotariko publikoentzat. Ezinbestekoa da talde horiek identifikatzea eta lehenestea, plataforma digitalak haien itxaropena eta behar espezifikoak betetzen dituela bermatzeko.

Asko dira zergatik edo hargatik San Telmo Museoarekin harremana hasten duten hartzaileak: turistak, bertakoak, artistak, museoetako profesionalak, kultur erakundeak, administrazio publikoak, prentsa espezializatua, hezkuntza-erakundeak, entitate sozialak, ikertzaileak, bazkideak eta babesleak, enpresak, publiko espezializatua, San Telmo Museoko langileak eta abar.

Hori horrela, jarraian gure xede-publikoek ordezkatzen dutena zerrendatu dugu, lehentasun-hurrenkeraren arabera:

1. Bertakoak

Donostiakoak eta Donostialdekoak, bereziki. Talde horrek bisitatzen du museoa sarrien, eta jardueretan, bisita gidatuetan eta aldi baterako erakusketetan parte hartzen du. Erakusketa iraunkorra ere bisitatzen du, bereziki berriren bat dagoenean. Talde horretan familiak, gazteak (18-35) eta erretirodunak sartzen dira.

Agenda eta erakusketak balio handiko edukia dira haientzat.

2. Bertako eta nazioarteko turistak

Bertako turistak Gipuzkoatik eta probintzia mugakideetatik datozenak dira, eta talde horrek aldi baterako erakusketak eta erakusketa iraunkorrak bisitatzen ditu, gehienbat. Noiz edo noiz, jardueretan eta bisita gidatuetan ere parte hartzen dute. Nekez egiten dira museoko bazkide.

Nazioarteko turistak munduko edozein lekutatik datoz, eta erakusketa iraunkorra bisitatzen dute, gehienbat. Aukera suertatzen bazaie, aldi baterako erakusketak ere bisitatzen dituzte, bertan dauden bitartean. Haien helburu nagusia museoak eskaintzen duen kultura- eta arte-aberastasuna ezagutzea da.

3. Publiko espezializatua

Ikertzaileak, akademikoak, irakasleak, arteko eta kulturako profesionalak eta artistak dira, museoko bildumei eta jarduerei buruzko eduki sakonak eta zehatzak bilatzen dituztenak. Talde horrek hezkuntzako eta ikerkuntzako baliabideetarako sarbidea behar du.

3.4 Edukiaren arkitektura

San Telmo Museoaren webgune berriaren eduki nagusia lau kategoria nagusitan egituratuko da. Atal bakoitzak informazio zehatz eta garrantzitsua emango du erabiltzaile-mota ezberdinentzat, eta esperientzia aberasgarri eta irisgarri bat emateko helburua beteko du.

Museoa

Deskribapen orokorra: Atal honek San Telmo Museoa euskal gizartearen museo gisa aurkeztuko du, eta haren xedearen eta helburuen ikuspegi osoa emango du.

Programa nabarmenak: Hemen, berezko izaera duten programa garrantzitsuak azpimarratuko dira (Erronkak, Museo bikoitza, Artea abian eta abar), eta informazio zehatza emango da bakoitzaren eta museoari eta komunitateari egiten dizkioten ekarpenen inguruan.

Erakusketa iraunkorra: Museoaren erakusketa iraunkorraren berri emango da, eta

museoaren nortasuna definitzen duten bildumak eta pieza gakoak zehaztuko dira.

Museoaren eta eraikinaren historia: San Telmo Museoaren eta haren egoitzen historia kontatuko da bertan, sortu zenetik gaur artekoa, gertakari garrantzitsuak azpimarratuko dira, eta izan duen bilakaera ere bai.

Bisita

Informazio orokorra: Atal honek museorako bisita antolatzeko behar den informazio guztia emango du, irekitzeko ordutegiak, tarifak eta kokapena barne.

Irisgarritasuna: Museoan askotariko gaitasun fisiko, sentsorial eta kognitiboak dituztenentzako irisgarritasun-baliabide eskuragarriak zehaztuko dira.

Bisiten tipologiak: Egin daitezkeen bisiten aukerak deskribatuko dira, hau da, bisita gidatuak eta eskolentzako, familientzako eta bestelako taldeentzako bisitak.

Bisita gidatuak: Bisita gidatuei buruzko informazioa, ordutegiak, hizkuntza eskuragarriak eta bisita erreserbatzeko modua barne.

Aplikazioak eta audiogidak: Bisitarientzat eskuragarri dauden mugikorreko aplikazioei eta audiogidei buruzko informazioa emango da, esperientzia aberastu eta pertsonalizatu bat emateko.

Eskulturen atlasa: Donostian eta, bereziki, kaleetan ikus daitezkeen eskulturen atlasa, museoarekin duten lotura eta haien testuinguru artistikoa nabarmenduta.

Urgull mendia: Urgull mendiaren inguruari, betako paisaiari eta museoko esperientziarekin integratzen den moduari buruzko informazioa, ibilbideak eta interes-guneak azpimarratuta.

Bilduma

Museoko bildumaren deskribapen orokorra.

Obra nabarmenak: Museoko pieza garrantzitsuenetako eta ospetsuenetako batzuk nabarmenduko dira, eta informazio gehigarria eta analisia emango.

Online katalogoa

Kontserbazioa eta zaharberritzea: Museoak egiten duen kontserbazio- eta zaharberritze-lana azalduko da, eta jarduera horiek kultur ondarea mantentzeko duten garrantzia azpimarratuko da.

Bildumaren ezagutza sakontzen laguntzen duten bestelako baliabideak.

Erakusketa

Aldi baterako erakusketak: Egungo aldi baterako erakusketen informazioa; baita iraganekoena eta etorkizunekoena ere, haien datak, gaiak eta helburuak barne. Bisitariak erakusketetara erakartzeko informazioa, haien garrantzia eta erakargarritasuna azpimarratzen dutenak. Hierarkizatzeko aukera eman behar du.

Agenda

Museoko jarduerak: Atal honek museoan egiten diren jarduera guztiak ezagutaraziko ditu, tailerrak, konferentziak, ekitaldi bereziak eta abar barne.

3.4.1 Webgunearen egitura orokorra

Web arkitektura berria honako egitura hau oinarritzat hartuz garatuko da:

ERABILERAK		
LIBURUTEGIA	**EGIN ZAITEZ BAZKIDE**	**DENDA**

EDUKI NAGUSIA				
MUSEOA	**BISITA**	**BILDUMA**	**ERAKUSKETAK**	**AGENDA**
Euskal gizartearen museoa **Programa nabarmenak: Erronkak Museo bikoitza Abian abian...** **Erakusketa iraunkorra** **Historia**	**Bisita irisgarria** **Bisita-motak** **Bisita gidatuak** **Aplikazioak eta audiogidak** **Planoa** **Eskulturen atlasa** **Urgull**	**Obra nabarmenak** **Online katalogoa** **Kontserbazioa eta zaharberritzea** **Beste baliabide batzuk**	**Egungo aldi baterako erakusketak** **Historia eta hurrengoak**	**Jarduerak**

BIGARREN MAILA			
KIDE KORPORATIBOAK	**ESPAZIOEN ALOKAIRUA**	**GARDENTASUN-ATARIA**	**HONI BURUZ**

HIRUGARREN MAILA					
KONTAKTUA	**PRENTSA**	**IRUDI-ESKAERA**	**BULETINAK**	**IRISGARRITASUNA**	**LEGE-ABISUA**

3.5 Agenda

Jardueren agenda San Telmo Museoaren webguneko atal garrantzitsu bat da. Haren helburua erabiltzaileei jarduera espezifikoen bilaketa azkar eta soila eskaintzea da, baita haien interes eta beharretan oinarritutako ideiak eta proposamenak eskaintzea ere. Jarduerak dataren, eduki-motaren, publiko-motaren eta gaiaren arabera iragazi ahalko dira. Gainera, doako jarduerak nabarmentzeko aukera ere kontuan hartu daiteke. Kategoria horiek bilaketen emaitzetan ere erabiliko dira.

Museoko jarduerak askotan jarduera nagusitan (adibidez, zinema-zikloak) eta bigarren mailako jardueratan (adibidez, film baten proiekzioa) banatzen dira. Bigarren mailako jarduerak agendan agertuko dira, nahiz eta jarduera nagusiekin duten loturaren arabera multzokatzeko aukerak egon behar duen.

Halaber, jarduera errepikakorrak ere agertuko dira, bisita gidatuak, esaterako. . Azkenik, jarduerak museoarentzat eta bisitarientzat oso baliotsuak direnez, webgunearen atal eta lotutako orrialde guztietan agertu beharko dute, erabiltzailearen esperientzia aberasteko. Adibidez, erakusketa batekin lotutako jarduerak erakusketaren orrialdean agertu ahalko dira.

3.6 Ildo grafikoa eta arte-zuzendaritza

San Telmo Museoaren webgune berrirako diseinu-proiektuaren funtsezko xedea da nortasun bisual dinamikoa, erakargarria eta modernoa sortzea, sektoreko azken joerekin eta itxaropenekin bat datorrena, eta irudi eguneratua eta museoaren esentziarekin bat datorrena islatzen duena.

Diseinu dinamiko, erakargarri eta modernoa

Webgunearen ildo grafikoak, lookak eta feelak dinamikoak eta erakargarriak behar dute, web diseinuaren azken joerei segituz, eta erabiltzaileen itxaropenei erantzun behar diete. Estetika modernoa lortzen saiatuko da, arreta erakartzen eta plataformarekiko interesa sortzen duena. Tradizioaren eta berrikuntzaren arteko bateratzea irudikatzeko gai den diseinu grafiko bat, museoaren aberastasun historiko eta kulturala era garaikidean irudikatzeko.

Markaren irudiarekiko bateragarritasuna

Funtsezkoa da ildo grafikoa eta looka eta feela San Telmo Museoaren markaren irudiarekin bateragarria izatea. Koherentea izan beharko du koloreekin, tipografiekin eta elementu bisualekin, eta bermatu egin beharko du webguneak museoaren nortasun bisuala fideltasunez islatzen duela eta marka ezagutzea indartzen duela.

Irisgarritasun irizpidea betetzea

Ildo grafikoak eta lookak eta feelak irisgarritasun irizpideak bete beharko dituzte, erabiltzailearentzako esperientzia inklusiboa eta guztientzat irisgarria izan dadin. Arreta berezia jarriko da testuaren irakurgarritasunean, koloreen kontrastean eta nabigazio intuitiboan, plataforma desgaitasuna duten pertsonentzat erabilerraza izan dadin.

4.0 IRISMENA

4.1 Proiektuaren kontzeptualizazioa eta definizio funtzionala eta azpiegitura teknologikokoa

Kontzeptualizazioa

SMART helburuak garbi definitzea: Helburu espezifiko, neurgarri, lorgarri eta garrantzitsuak ezartzea, epeak definituta, webgune berrirako. Helburu horiek bat etorri beharko dute museoaren xede eta estrategia orokorrarekin.

Atariaren mapa bat eta erabiltzaileen fluxu-diagramak sortzea, honela zehaztuta: Webgunearen edukiaren egitura eta antolaketa zehazki definitzea, baita erabiltzaile mota bakoitzerako nabigazio-bideak eta interakzio-fluxuak ere.

Definizio funtzionala

Webgunearen ezaugarri bakoitza zorrotz-zorrotz zehaztea, haren helburua,

funtzionamendua, erabiltzailearekiko interakzioa eta betekizun teknikoak barne. Funtsezkoa da egungo webgunean dauden funtzionalitateak mantentzea, eta atal zentraletako hobekuntza garrantzitsuak lehenestea.

Kanpoko sistemekiko integrazioak: Museoko beste sistema batzuekin behar diren integrazioak definitzea, esaterako, bildumak kudeatzeko zerbitzuarekin eta sarrerak erosteko eta erreserbak egiteko sistemarekin.

Irisgarritasunerako oharrak: WCAG jarraibideak ezartzea, edo indarrean dagoena, webgunea desgaitasuna dutenentzat irisgarria izan dadila bermatzeko.

Azpiegitura teknologikoa definitzea

Azpiegitura teknologikoaren definizioa proiektuaren beharretan oinarritu beharko da, eskalagarritasuna, segurtasuna, errendimendua eta erabilerraztasuna aintzat hartuta. Planteatutako beharrak era egokian ebatziko direla bermatzen bada, nahitaezkoa da Joomla mantentzea edukien kudeatzaile gisa, ezaguna delako, taldeak harekin esperientzia duelako, haren komunitateagatik, malgutasunagatik, eskalagarritasunagatik eta eskuragarri dituen integrazioengatik.

Segurtasun-plana: Webgunea babesteko segurtasun-neurri sendoak ezartzea atake zibernetikoen aurka, eta datuen konfidentzialtasuna bermatzea.

Errendimendu-plana: Wegbunearen errendimendua optimizatzeko estrategiak definitzea eta karga-denbora azkarrak eta erabiltzaileentzako esperientzia bizia bermatzea.

4.2 San Telmo Museoaren webgune berria diseinatzea

Nortasun bisual berezi eta gogoangarria sortzea: Diseinu-sistema koherente bat garatzea, museoaren marka-nortasuna islatzen duena eta haren balioak eta pertsonalitatea helarazten duena.

Erabiltzaileen ikerketak egitea: Elkarrizketak, inkestak eta erabilgarritasun-testak egitea museoko erabiltzaileen beharrak, itxaropenak eta jokabideak hobeto ulertzeko.

Pertsonak sortzea: Museoaren xede-publikoaren segmentuak hoberen irudikatzeko erabiltzaileen arketipoak definitzea.

Erabiltzaileen journeyak diseinatzea: Erabiltzaileek webgunean egingo dituzten ibilbideak definitzea, haien helburuak betetzeko, eta eragozpen-puntuak eta hobetzeko aukerak identifikatzeko.

Erabilgarritasuna eta irisgarritasuna lehenestea: Erabiltzailea erdigunean duten printzipioak eta irisgarritasun unibetsaleko printzipioak ezartzea, webgunea guztientzat erabilerraza izan dadin.

Askotariko gailuetarako optimizatzea: Webgunearen diseinua eta funtzionalitatea egokitzea, askotariko gailuetan ondo funtziona dezan: telefono adimendunak, tabletak, mahaigaineko ordenagailuak eta abar.

4.3 San Telmo Museoaren webgune berria ezartzea

Webgune berria ezartzea

Plataforma ezartzea Webgunea ezartzea CMS moduan Joomla erabiliz, eta kalitate eta

irisgarritasuneko estandarrei jarraituz. Webgune berria garatuko da, web-garapeneko jardunbide onenei jarraituz eta kode garbi, modular eta mantengarria bermatuz.

Dauden funtzionalitateak: Egungo webguneko funtzionalitate guztiak ezarriko dira, eta eraginkortasunez eta bizi dabiltzala ziurtatuko da.

Hobekuntzak eta optimizazioak: Hobekuntzak behar dituzten puntuak identifikatuko dira, eta behar diren soluzioak ezarriko dira erabiltzailearen esperientzia eta webgunearen erabilgarritasuna eta errendimendua optimizatzeko.

Askotariko gailuetarako optimizatzea: Responsive diseinuaren proposatutako ezarpena, erabiltzailearen esperientziarik onena bermatuko duena gailu guztietan, smartphoneak, tabletak eta mahaigaineko ordenagailuak barne.

Kargatzeko abiadura: Webgunea kargatzeko abiadura optimizatuko da, erabiltzailearen esperientzia eta bilaketa-motorretako posizionamendua hobetzeko.

Segurtasuna: Webgunea eraso zibernetikoetatik eta malwaretik babesteko behar diren segurtasun-neurriak ezarriko dira.

Integrazioak

Donostia Kulturarekin integratzea: Donostia Kulturarekin dagoen integrazioa identifikatzea eta zehatz-mehatz aztertzea, gero garatzeko eta webgune berrian egokitzeko.

San Telmo Museoak beste plataforma batzuekin duen interakzioa/integrazioa optimizatzea: San Telmo Museoak egun kanpoko plataformekin dituen interakzioak aztertzea, esaterako, EMSIMErekin ABSYSekin eta Second Canvasekin dituenak, hobetzeko puntuak identifikatzeko eta erabiltzaileen nabigazio-esperientzia optimizatuko duten integrazio sendoagoak ezartzeko.

Irisgarritasuna

Irisgarritasuneko WCAG 2.1. auditoretzak egitea: Webguneen irisgarritasunaren arloko adituak kontratatzea webgune berriaren auditoretza zorrotzak egiteko eta webguneak irisgarritasuneko betekizun guztiak betetzen dituela bermatzeko behar diren zuzenketak egitea.

Proba-plana

Proba-plan bat definitzea: Proba-plan zehaztu bat garatzea, dauden integrazio guztiak eta ezarritako berriak estaltzen dituena.

Probak egikaritzea: Integrazioen proba zorrotzak egitea, proba-tresna automatizatuak eta eskuzkoak erabiliz. Sistemen arteko datuen transferentziak zehatzak eta seguruak direla eta betekizun funtzionalak betetzen dituela baliozkotzea.

4.4 SEO migrazioa eta edukiaren migrazioa

SEO migrazioa

Egungo webgunearen SEO auditoretza: Webgunearen egungo SEO egoeraren analisi zorrotza, honako hauek identifikatzeko:

- Museorako eta haren xede-publikorako hitz gakoak, egoki erabiltzen ari ez direnak.
- Webgunea bilaketa-motorretan ondo indexatzea eragozten duten arazo

teknikoak.
- Eguneratu gabeko edo garrantzirik gabeko edukiak, erabiltzaileei baliorik ematen ez dietenak.
- Esteka hautsiak edo okerreko birbideratzeak, erabiltzailearen esperientzia txartzen dutenak.

SEO migrazioaren plangintza: Webgune zaharraren SEOa berrira migratzeko estrategia integral bat definitzea, honako hauek aintzat hartuta:

- URLen birbideratze egokia, posizionamendurik ez galtzeko.
- Metadatuak, tituluak eta goiburuak optimizatzea webgune berrian.
- Web-analisiko tresnak ezartzea SEO errendimendua monitorizatzeko.

SEO migrazioa ezartzea: SEOa migratzeko planifikatutako ekintzak egikaritzea, honako hauek, gutxienez:

- URL zaharren 301 birbideratzea, webgune berriko baliokideetara.
- Metadatuak, tituluak eta goiburuak optimizatzea webgune berriaren orrialde guztietan.
- Sitemap eguneratu bat sortzea, bilaketa-motorrek webgunea indexatzea erraztuko duena.
- robot.txt fitxategi bat sortzea, bilaketa-motorrei zein orrialde indexatu behar den eta zein ez adieraziko diena.

Edukiaren migrazioa

Edukia erauztea: Egungo webgunetik testuzko eduki, irudi, bideo eta bestelako baliabide guztiak tentuz erauztea.

Edukia garbitzea eta antolatzea: Egun dagoen edukia berrikustea eta eguneratzea, webgunearen egitura berrira eta SEOko jardunbide onenetara egokitzeko.

Edukia webgune berrian ezartzea: Prozesatutako edukia webgune berrian integratzea, hautatutako edukiak kudeatzeko sistema (CMS) erabiliz eta SEO jardunbide hobeei jarraituz.

4.5 SEO optimizazioa

SEOko jardunbide onenak ezartzea, webguneak bilaketa-motorretan hobeto posizionatzen, trafiko organikoa handitzen eta helburu estrategikoak erdiesten lagunduko dutenak.

4.6 Aholkularitza eta web-analisiaren garapena

Helburuak eta estrategiak definitzea: San Telmo Museoarekin elkarlanean aritzea, helburu garbiak ezartzeko, web-analisiak neur ditzakeenak eta museoaren estrategia orokorrarekin bat datozenak. Jarraian, errendimenduaren adierazle gako garrantzitsuenak (KPIak) identifikatzea, museoaren webguneko ekimenen arrakasta neurtzekoak, eta web-analisiko estrategia bat garatzea, tresnen hautaketa, ekitaldien ezarpenak eta txosten pertsonalizatuen definizioak jasoko dituena.

Analisi-tresnak ezartzea: Google Analytics 4 (GA4) ezartzea, baita web-analisiko bestelako open source tresna batzuk ere, erabiltzaile garrantzitsuen datuak eta pribatutasuna babestuko dutenak, webguneko trafikoari, erabiltzaileen jokabideari eta marketin-kanpainen eraginkortasunari buruzko datuak biltzeko.

Datuen analisia eta bistaratzea: Bildutako datuak sakon aztertzea, webgunean ereduak, joerak eta hobetzeko aukerak identifikatzeko. Txosten pertsonalizatuak eta kontrol-panelak

sortzea museoko taldeak datuak garbi eta modu irisgarrian bistaratzeko.

4.7 Webgunea abiaraztea eta ekoizpenean jartzea

Ekoizpen-ingurunea egiaztatzea: Ekoizpen ingurunea sakon-sakon berrikusiko da, betekizun tekniko guztiak eta segurtasunekoak betetzen dituela webgune berria hartzeko.

Webgunea ezartzea: Webgunea ekoizpen-ingurunean ezarriko da, garapen-ingurunetik edukia eta ezarpenak tentu handiz migratuz.

Proba funtzionalak: Proba funtzional zorrotzak egingo dira webguneko funtzionalitate guztiak ondo dabiltzala egiaztatzeko, nabigazioa, galdetegiak, integrazioak eta erabiltzailearen esperientzia barne.

Kargatze-probak: Kargatze-probak egingo dira, webgunearen errendimendua ebaluatzeko, askotariko trafiko-egoeretan, espero den bisita-bolumena jasan dezakeela bermatzeko.

Monitorizazioa eta alertak: Monitorizatzeko-sistemak eta alertak ezarriko dira, webgunean sor daitekeen edozein arazo behar bezala detektatzeko eta jakinarazteko.

4.8 Webgunea mantentzeko zerbitzua (prebentiboa, ebolutiboa eta zuzentzailea)

Lizitatzaileak eskainitako mantentze-zerbitzuen deskribapena egingo du, proposamen teknikoaren metodologiaren apartatuan.

Mantentze-lan prebentibo, ebolutibo eta zuzentzailerako behar den edozein jarduketa zerbitzua eten gabe egingo da. Geldialdirik egin behar bada, entitate kontratatzaileari jakinarazi beharko zaizkio, eta harekin batera planifikatu beharko dira. Eten horiek San Telmo Museoak onetsi beharko ditu.

Proiektua behin betiko ezarri arte, hau da, web-ingurunea sortuta egon arte, ez da hasiko mantentze-zerbitzu zuzentzaile, ebolutibo eta prebentiboa ematen.

Mantentze-lan zuzentzailea

Intzidentziei erantzutea: Berehala erantzungo zaie webgunean sortzen diren intzidentziei, eta lehenetsi egingo dira erabiltzailearen esperientziari edo webgunearen eskuragarritasunari eragiten dietenak.

Jatorrizko kausa aztertzea: Intzidentzien jatorrizko kausa aztertuko da, behin betiko irtenbideak ezartzeko, eta etorkizunean berriz gertatu ez daitezen.

Zuzenketak ezartzea: Identifikatutako intzidentziak konpontzeko behar diren zuzenketak egingo dira, webgunea erabili ezin ahal bezain denbora gutxi utzita.

Bezeroarekin komunikatzea: San Telmo Museoarekin komunikazio arina izango da, intzidentzien egoeren eta horiek konpontzeko ekintzen beri emateko.

Mantentze-lan prebentiboa

Plataformaren eguneraketak: Joomla aldizka eguneratuko da, webgunearen segurtasuna eta errendimendurik onena bermatzeko.

Babeskopiak: Webgunearen eta datu-basearen babeskopia erregular eta automatizatuak ezarriko dira, edozer gertatuta ere informazioa babesteko.

Errendimendua optimizatzea: Webgunearen errendimendua monitorizatu egingo da, eta

optimizazio-neurriak aplikatuko dira kargatze-abiadura eta erabiltzaileen esperientzia hobetzeko.

Segurtasun-berrikuspenak: Aldizkako segurtasun-berrikuspenak egingo dira webgunea arriskuan jar dezakeen edozein ahulezia identifikatzeko eta zuzentzeko.

Erregresio-probak: Erregresio-probak egingo dira webgunean egindako eguneraketa edo aldaketa guztien ondoren, intzidentzia berririk ez dagoela bermatzeko.

Mantentze-lan ebolutiboa

Funtzionalitate berriak ezartzea: Funtzionalitate berriak garatuko eta ezarriko dira webgunean, San Telmo Museoaren errekerimenduei jarraituz.

Teknologia-aldaketetara egokitzea: Webgunea aldaketa teknologiko berrietara egokituko da, esaterako, sistema eragilearen edo zerbitzariaren softwarearen bertsio berrietara.

Erabiltzailearen esperientziaren hobekuntzak: Hobekuntzak egingo dira erabiltzailearen esperientzian, bisitarien jokabidearen iruzkinetan eta analisian oinarrituta.

SEOrako optimizazioa: SEOrako optimizazio-estrategiak ezarriko dira, webgunea bilaketa-motorretan hobeto posizionatzeko.

Kanpoko sistemekiko integrazioak: Webgunea kanpoko sistema gehiagorekin integratuko da.

5.0 BETEKIZUN TEKNIKOAK

5.1 Erabiltzailearen esperientziarekin lotutakoak

Erabiltzailearen esperientziarako betekizunak (UX) erabiltzaileen eta sistema edo aplikazio baten arteko interakzioa definitzen duten irizpideak dira. San Telmo Museoaren web-plataformaren garapenean, betekizun horiek funtsezkoak dira erabiltzailearen esperientzia optimoa, irisgarria eta segurua bermatzeko.

Irisgarritasuna

Irisgarritasun inklusiboa lortzeko, web-plataformak Web Edukiaren Irisgarritasun Jarraibideen (WCAG 2.1) AA mailaren irizpideak beteko ditu, edo une bakoitzean indarrean dagoenarenak.

Betekizun hori betetzen dela bermatzeko, lizitatzaileari honako hauek egin ditzan eskatuko zaio:

- **Diseinu irisgarriaren jarraibideei** segitzea web-plataforma garatzeko prozesu osoan.
    - Erabiltzailearen interfazea, elementu interaktiboak eta edukia erabiltzaile guztientzat irisgarria dela bermatzea.
- **Irisgarritasunaren arloko auditoretza sakonak** egitea web-plataformaren garapen-etapa guztietan.
    - Auditoretzetan detektatzen den irisgarritasun-oztopo oro identifikatzea eta zuzentzea.
    - Web-plataforma erabiltzaile guztientzat irisgarria dela bermatzeko behar diren neurriak ezartzea.
- **Irisgarritasuna ebaluatzeko tresna automatizatuak eta eskuzkoak** erabiltzea, irisgarritasun-arazo posibleak identifikatzeko eta aztertzeko.

Teknologia estandarrak

Web-plataforma teknologia estandar eta ondo zabalduetan oinarritu behar da, esterako, HTML5 eta CSS3 teknologietan, askotariko nabigatzaileekin eta gailuekin bateragarria dela bermatzeko, eta, beraz, esperientzia egokia bermatzeko, bistaratze- edo errendimendu-arazorik gabea.

Protokoloen euskarria

Web-plataformak ohiko nabigazio-protokoloetarako prest egon beharko du, esaterako, HTTP/2 eta HTTPS protokoloak, funtzionamendu seguru eta eraginkorra bermatzeko.

Mobile First

Gailu mugikorretako erabiltzaileen esperientzia lehenesten duen webguneen diseinu- eta garapen-ikusmoldea. Webgunea lehenik pantaila txikietarako diseinatuko eta garatuko da, eta gero pantaila handiagoetarako optimizatuko.

Nabigazio intuitiboa

Web-plataformak nabigazio garbi, soil eta intuitiboa beharko du, aurretiazko jakintzarik ez duten erabiltzaileek ere erraz erabil dezaten. Nabigaziorako egitura logikoa, menuen eta nabigazio-elementuen erabilera egokia eta bilaketa eraginkorra funtsezkoak dira nabigazio intuitiboa lortzeko.

Nazioartekotzea

Web-plataformak hainbat hizkuntza hautatzeko aukera eman beharko du (eu|es|fr|en), erabiltzaileek informazioa hizkuntzarik gogokoenean nabigatu eta eskuratu ahal izateko. Funtzio hori garrantzitsua da mundu osoko hartzaileei erantzuteko eta esperientzia pertsonalizatua emateko.

Webgune dinamikoa

Webgune berriko orriek dinamikoak izan beharko dute, eta, horretarako, orrialdeak aurretiaz definitutako eta ezarritako osagai funtzionalen multzo batez eraiki beharko dira.

Osagai funtzionalak edukia erakutsi edo ezkutatu, itxura aldatu edo hainba faktoreren arabera ekintzak egin ditzaketen elementuak dira, esaterako, erabiltzaileen interakzioaren, ekitaldi espezifikoen edo aurrez ezarritako baldintzen arabera.

Osagai funtzionalen adibideak:

- Slider/irudi-karrusela.
- Elementu nabarmenak: Edukiak nabarmentzeko aukera ematen du, adibidez, ekitaldiak, albiste interesgarriak eta abar.
- Leadak lortzeko galdetegia.
- Eta abar.

Barneko estekak edo lotutako edukia

Barneko hiperestekak gida-lanak egiten dituzte, erabiltzaileei eduki garrantzitsua eta elkarri lotutakoa webgunearen barruan topatzen laguntzeko. Horrek erabiltzaileei aukera ematen die intereseko gaiak sakontzeko, informazio gehigarria topatzeko eta webguneko hainbat atal intuizioz esploratzeko.

SEO optimizazioa

Web-plataformak SEO optimizazioko jardunbide egokiei segitu behar die, hala testuzko edukiari nola irudiei, bideoei eta URL estekei dagokienez, bilaketa-emaitzen ikusgarritasuna hobetzeko.

Beharrezkoa izango da eduki estrategikoetan, esaterako, ekitaldietan, albisteetan, postak eta abarretan CMSak aukera ematea informazioa datu egituratuak sortzeko moduan elikatzeko.

Datu egituratuak Googleren moduko bilaketa-motorrei webgune bati buruzko informazio gehigarria emateko formatu estandarizatu bat dira. Webgunearen edukiari buruzko informazio gehigarria ematean, datu egituratuek bilaketa-motorrei lagundu egiten diete webgunearen gaia, eduki-mota eta asmoa hobeto ulertzen. Gainera, datu egituratuek aukera ematen dute bilaketa-emaitzetan zati aberastuak gehitzeko, esaterako, iruzkinak edo datozen ekitaldiak.

Beharrezkoa izango da, halaber, SEO on-page teknikak eraginkortasunez ezartzea, tituluak, metadeskribapenak, barne edukia, URLen egitura, irudiak eta bestelako elementu esanguratsuak optimizatuz, bilaketa-motorretan posizionamendua hobetzeko.

Bilatzaile integratua

Web-plataformak bilatzaile aurreratu integratu bat izan behar du, erabiltzaileek bilatzen duten informazioa erraz bilatzeko. Bilatzaile eraginkor bat, funtzio aurreratuak dituena, esaterako, aldekako bilaketa, bilaketa-terminoak iradokitzea, erabiltzaile-esperientzia hobetzea eta informazio esanguratsua lokalizatzea.

Nabigazio-esperientzia berezia

San Telmo Museoko bisitariei nabigazio-esperientzia berezia eta erakargarria ematea kanpoko plataforma eta aplikazioekin lotutako informazioa duten ataletan. Gaur egun, bisitariak gehienetan museoaren webgunetik atera behar du informazio hori bistaratzeko (adibidez: EMSIME, ABSYS, Egizu lan gurekin eta abar). Beharrezkoa izango da erabiltzaileak webgunetik ateratzen ari ez dela sentitzen laguntzeko modu bat proposatzea.

5.2 Plataformaren kudeaketarekin eta administrazioarekin lotuak

San Telmo Museoak erabaki du Joomla mantentzea museoaren web-ekosistema berriaren oinarri gisa, honako abantaila hauek direla eta:

- **Egungo ezagutza eta esperientzia:** Museoko taldeak ezagutza eta esperientzia baliotsua du edukia Joomlarekin kudeatzen. Horrek webgune berriaren eraginkortasun handiagoa eta ezarpen- eta mantentze-kostu txikiagoa ekarriko du.
- **Ikasketa-kurba murriztua:** Joomla mantenduta, langileak gutxiago prestatu behar dira, eta horrek bizkortu egiten du web-ekosistema berriari heltzea eta eragina txikiagotzen du produktibitatean.
- **Museoaren beharren ikusmoldea:** CMSa aldatzean oinarritu beharrean, proposatzen dugu ahalegina museoaren behar espezifikoetan egitea, esaterako, erabiltzailearen esperientzia hobetzean, edukia optimizatzean eta teknologia berriekin integratzea.

Rolen/baimenen kudeaketa

San Telmo Museoko departamentu guztiak askotariko edukiak edo webgunearen atalak kudeatzeko CMSra sartu ahal izateko, CMSak rolak kudeatzeko sistema granular bat behar du, hainbat sarbide-maila eta erabiltzaile bakoitzarentzako baimenak ezartzeko aukera emango duena.

Funtzio hori funtsezkoa da webgunearen edukiaren gaineko segurtasuna eta kontrola bermatzeko. Administratzaileek rol espezifikoak definitu ahalko dituzte, esaterako, editoreenak, autoreenak edo berrikusleenak, eta bakoitzari baimen espezifikoak eman ahalko dizkiete, adibidez, edukia sortzekoa, editatzekoa, ezabatzekoa edo argitaratzekoa.

Hizkuntzen kudeaketa

CMSak eleanitza izan beharko du, eta edukia hainbat hizkuntzatan sortzeko eta administratzeko aukera eman beharko du.

Menuen kudeaketa

CMSk webgunerako menu pertsonalizatuak sortzea eta administratzea erraztu behar du, eta aukera eman behar du hainbat habiaratze-mailako menu hierarkikoak sortzeko.

Aipatu beharra dago erabiltzaileak hizkuntzen menuan hizkuntza aldatzen duenean une horretan darabilen orrialde identifikatu beharko dela, eta orrialde horren hautatutako hizkuntzako bertsioa kargatu beharko da.

Orrialde espezifiko baterako hizkuntza jakin bateko itzulpenik ez dagoen kasuak ere kudeatu beharko dira. Hala gertatuz gero, erabiltzailea menuko orrialde nagusira birbideratuko da, hautatutako hizkuntzan.

Orrialdeen kudeaketa

CMSak aukera eman beharko du osagai funtzionalak dituzten orrialdeak eraikitzeko eta administratzeko. Hortaz, adibidez, orrialde nagusian osagai berriak bistaratzeko/ezkutatzeko aukerak egon beharko du, une bakoitzean museoa lantzen ari den estrategia digitalaren arabera.

Lotutako edukiak

CMSak aukera eman behar du testuinguruaren araberako harremanak ezartzeko edukien artean, erabiltzaileak ezagutza-bidaia sakonean murgiltzeko ezagutza-sare bat sortzeko.

5.3 Donostia Kulturarekiko konexioarekin lotuak

San Telmo Museoaren webgune berriak Donostia Kultura plataformatik datorren informazioa eskuratzeko eta erakusteko gaitasuna mantendu beharko du, REST APIaren bitartez. Gaur egun, honako hauek dira APIaren bitartez lortzen diren edukiak:

- Agendako ekitaldiak
- Erakusketak (agenda formatua)
- Ikastaroak
- Oharrak eta prentsa-deialdiak
- Albisteak

Agendako ekitaldiak

Azpimarratzekoa da ezberdinak direla Donostia Kulturak kultur ekitaldiak sailkatzen dituen eraren eta San Telmo Museoak bere edukien estrategiaren arabera sailkatuko lituzkeen eraren arabera. Ezberdintasun horrek erronkak sortzen ditu informazioa museoaren webgunean kudeatzeko eta aurkezteko eran.

Arazo horri aurre egiteko, proposatu da irtenbide bat ezartzea, museoari ekitaldiak bere estrategiarekin bat datorren eran sailkatzeko aukera emango diona, aldi berean Donostia Kultura plataforman dauden datuak baliatuta.

Beste eduki batzuekiko konexioa

Lizitatzaileak San Telmo Museoaren webgune berriaren funtzionalitatea zabaldu beharko du, Donostia Kulturaren eduki gehiago integratuz, bereziki **argitalpenak eta alokairuak**, Donostia Kulturaren APIaren bitartez.

Lizitatzaileak Donostia Kulturaren APIa sakon aztertu beharko Donostia Kulturaren APIa, haren funtzionamendua, eskuragarri dauden datuak eta integratzeko aukerak ulertzeko.

APIaren azterketan oinarrituta, lizitatzaileak proposamen zehatz bat aurkeztu beharko du, argitalpenen eta alokairuen edukiak museoaren webgune berrian nola integratuko diren azaltzeko, eta integrazioaren garapen-prozesua zehazteko.

5.4 Nahi diren ad hoc funtzionalitateekin lotuak Ekitaldien orrialde automatikoak

Puntu honen helburua da orrialde automatikoak ezartzea proposatzea, webgunearen SEOa hobetzeko estrategia gisa. Orrialde horiek, eduki esanguratsuarekin automatikoki sortutakoak (adibidez, San Telmo Museoaren hurrengo ekitaldiekin sortuak), hitz gakoekin optimizatuta, aukera emango dute webgunearen ikusgaitasuna handitzeko bilaketa-emaitza organikoetan.

Orrialde automatikoak hilean behin argitaratuko dira, dagozkion ekitaldien programazioarekin, editoreak berak esku hartu beharrik gabe. Orrialde horiek behar diren hitz gakoekin optimizatuko dira, erabiltzaileek webguneko ekitaldiei eta jarduerei buruz bilatzen duten informazioa erraz topatzeko.

Orrialdeak automatikoki sortuko eta argitaratuko diren arren, erabiltzaileentzat ez dira eskuragarri egongo webgunearen nabigazio tradizionalaren bitartez. Horrek esan nahi du ezingo direla menuan nabigatuz edo webgunearen barne estekei jarraituz topatu.

Dena den, webgunearen sitemapean duten presentziak aukera emango du horiek bilaketa-motorretan detektatzeko eta indexatzeko. Horrela, beraz, erabiltzaileek bilaketa organikoak eginez topatu ahalko dituzte, optimizaziorako erabili diren hitz gako esanguratsuak erabiliz.

Garrantzitsua da azpimarratzea orrialde automatikoek ezin dutela SEO estrategia osoa ordeztu. Gomendagarria da kalitate handiko eduki esanguratsua sortzen jarraitzea webgunearen beste atal batzuetan, eta beste SEO teknika batzuk erabiltzea webgunearen ikusgaitasuna hobetzeko, oro har.

6.0 EZARTZEA

Enpresa lizitatzaileak proposamen tekniko bat aurkeztuko du, lan-kronograma batekin, abiarazte-plan batekin eta lan-metodologiarekin, klausula administratibo partikularen agiriaren karatulako 11.2. puntuan adierazitakoari jarraituz.

San Telmo Museoak ahalmena izango du hartan egoki iritzitako aldaketak egiteko, webgune berria ondo ezartzeko.

6.1 Ezartzeko epea

San Telmo Museoak zenbatetsi duenez, web-ingurune berriaren sorrera (diseinua, ekoizpena eta ezarpena) **urtebetean** amaituta egongo da, kontratua formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita.

Fase honetan, gutxi gorabehera, honako egutegi honi jarraituko zaio:

1. Proiektuaren analisia eta definizioa, 3 aste.
2. Erabiltzailearen interfazearen prototipoa egitea eta hura diseinatzea, 5 aste.
3. Webgune berria ezartzea eta CMSa pertsonalizatzea, 8 hilabete.
4. Edukiak mugitzea, hilabete.
5. Testatzea eta ekoizpenean jartzea, hilabete.

Proiektua abiarazteko egintza (egikaritzeko baldintzak eta akordioak adostuko dira bertan) eta fase bakoitzaren jasotzea aktan jasoko dira.

6.2 Prestakuntza

Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du aurrez aurreko prestakuntza-saio bat

emateko webgune berriaren CMSari buruz, entitate kontratatzaileko langileentzat.

Prestakuntzak gutxienez 4 orduko iraupena izango du, eta 10 parte-hartzaile, gehienez ere. Helburu nagusia da kudeatzaileak gaitzea, aplikazioa autonomiaz erabili ahal izan dezaten, eta webgunearen mantentze-lanak egin ahal izan ditzaten, kanpoko laguntzarik gabe.

6.3 Edukiak migratzea

Web-ingurune berriak eduki historikoa jaso beharko du, webgune berria abiarazten den egunetik. Edukia era adimendunean migratu beharko da, arkitekturaren apartatuan deskribatutakoari eta agiri honetan jasotako San Telmo Museoaren helburu berriei jarraituz.

Garrantzitsua da SEOa aintzat hartzea, helburua ikusgaitasun hobea eta balioa lortzea baita, kanpoko bilaketa errazteko, baita atariaren barnekoa ere.

Horretarako, eskaintzan migrazio-plan bat jaso beharko da, lehen aipatutako helburuak erdiesten direla bermatzeko, horietako bakoitzak arkitektura berriarekin bat datorren balio erantsia eman dezan.

7.ZERBITZUAK

7.1 Zerbitzua emateko lekua

Enpresa adjudikaziodunak webgunea bere bulegoetan garatuko du (aurrez aurre zein urrunetik), baina laneko bilerak San Telmo Museoaren instalazioan egiteko aukera izango du, halakorik behar badu.

7.2 Ordutegiak

Enpresa adjudikaziodunak ezarriko du bere taldearen lan-ordutegia, baina euskarri jarraitua eman beharko du astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 17:00etara.

7.3 Intzidentzien tipologia eta intzidentzia-motak

Zerbitzuari lotuta gerta daitezkeen intzidentziak mailakatu egin dira, eta horiek klausula honetan ezarritako epeetan ebatzi beharko dira, gehienez ere:

A. **Intzidentzia kritikoak:**

   Intzidentzia kritikotzat joko dira webgunea oro har edo funtzionalitate ezinbestekoak eskuragarri egotea eragozten dutenak. Intzidentzia horien artean, aurreikus daitezkeenak aurreikusten dira, eta horiei berehala erantzun beharko zaie.

B. **Intzidentzia arinak:**

   Intzidentzia kritikotzat joko dira webgunearen zatiren bat eskuragarri egotea eragozten dutenak. Horrelako intzidentziei bost orduan erantzun beharko zaie. Halaber, Intzidentzia arintzat joko dira webgunea blokeatu gabe zerbitzua

kaltetzen dutenak. Horrelako intzidentziei berrogeita bost orduan erantzun beharko zaie, gehienez ere.

Enpresa lizitatzaileek beren eskaintzetan intzidentziak kudeatzeko protokolo bat jaso beharko dute, eta entitate kontratatzailearen eta enpresa adjudikaziodunaren arteko informazioa koordinatzeko era proposatu beharko dute.

7.4 Arau-hausteak

Enpresa adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arau-haustetzat jotzen dira agiri hau eraentzen duten preskripzio teknikoetan zehaztutako obligazioak eta betekizunak ez betetzeari dagozkionak, eta, besteak beste, honako hauek zehaztu dira:

Arau-hauste oso larriak

- Zerbitzuak emateko aurreikusitako data baino hamabost egun gehiagotik gora luzatzea zerbitzua ematen hasteko.
- Intzidentzia kritiko bat jakinarazitakoan, berehala eta behar diren bitarteko guztiekin esku ez hartzea.
- San Telmo Museoko teknikariek emandako aginduei jaramonik ez egitea, aurretiaz haiek eskatu badute.
- Agiri honetan ezarritako edozein baldintza eta epe ez betetzea, horrek gero dakartzan ekintzak edozein direla ere.
- Zerbitzua ematean segurtasun-elementurik edo -neurririk eza.
- Web-atariaren segurtasun-ahuleziak.
- Proiektua abiarazteko aktan ezarritako epeak ez betetzea.

Arau-hauste larriak

- Zerbitzua ematean atzeratzea, sistematikoa ez bada. Dagokion teknikariak idatziz hiru bider ohartarazitakoan, arau hauste larritzat joko da.
- Enpresa adjudikazioduneko langileek hirugarrenekin izandako gorabeherak, hala tratu desegokia emateagatik nola zerbitzua gaizki emateagatik gertatutakoak. Horrelako hiru gorabehera gertatuz gero, arau-hauste oso larri bat jazo dela ulertuko da.
- Zerbitzuak aldatzea, justifikatzeko arrazoirik eta aurretiazko jakinarazpenik gabe. Horrelako bi eginez gero, arau-hauste oso larri bat egin dela ulertuko da.

Arau-hauste arinak

- Arestian aurreikusi gabeko gainerakoak, agiri honetan ezarritako baldintzak nolabait kaltetzen dituztenak, zerbitzua larriki kaltetu gabe, edo langileen edo erabilitako bitartekoen alorrean gabeziak dakartzatenak.

Edozein ez-betetze aurreko ataletako edozeinetan sailkatzea San Telmo Museoko kontratuaren arduradunari dagokio soil-soilik, eta idatziz jakinarazi beharko dio proiektuaren zuzendariari.

7.5 Bilerak

Koordinazio bilerak, web-plataforma ezartzeko prozesuak iraun bitartean

Kontratua hasten denetik, San Telmo Museoaren eta enpresa adjudikazioduneko proiektuaren zuzendariaren arteko koordinazioa astean behin egingo da, bilera baten bitartez. Bertan, enpresa adjudikaziodunak kontratuaren aurrerapena azaldu beharko du,

fase bakoitzeko, baita proiektuaren planetik gertatutako desbideraketa guztiak ere.

San Telmo Museoak bileren aldizkakotasuna aldatu ahalko du, zerbitzuaren martxaren arabera.

Bilera horiek San Telmo Museoaren instalazioetan egingo dira, eta ezingo dira fakturatu.

Bilera horietan, enpresa kontratistaren eta enpresa kontratatzailearen arteko ahozko harremanetan euskara erabiltzen dela bermatuko da.

Proiektuaren jarraipen-bilerak, kontratua indarrean egon bitartean

Hilean behin, proiektuaren zuzendariak eta San Telmo Museoko arduradunek bilera bat egingo dute, proiektuaren martxa aztertzeko. San Telmo Museoak bilera horietan hurrengo hiruhilekoko lan-ildo nagusiak planteatuko ditu, enpresa adjudikaziodunak behar dituen baliabideen plangintza eraginkortasunez egin ahal izan dezan.

Bilera horiek San Telmo Museoaren instalazioetan egingo dira, eta ezingo dira fakturatu.

Bilera horietan, enpresa kontratistaren eta enpresa kontratatzailearen arteko ahozko harremanetan euskara erabiltzen dela bermatuko da.

Proiektuaren premiazko bilerak, kontratua indarrean egon bitartean

Salbuespenetan, hiruhilekoetako plangintzan aurreikusi gabeko egoerak ebazteko ,San Telmo Museoak aukera izango du premiazko bileretara deitzeko. Bileretarako deialdia 48 ordu lehenago egingo du, gutxienez.

Bileran emandako egiazko orduak bakarrik fakturatu ahalko dira teknikariaren ordurako eskainitako unitateko prezioan (ez da joan-etorrien gasturik edo antzekorik onartuko).

Donostian, sinadura elektronikoan agertzen den datan.

JOSE JAIME OTAMENDI MUÑAGORRI - 15986694S

Digitalki sinatuta norengandik: JOSE JAIME OTAMENDI MUÑAGORRI - 15986694S
Data: 2025.05.27 11:00:30 +02'00'

Jaime Otamendi Muñagorri

Gerentea